

EuskarAbentura sareak ehuntzen

EuskarAbentura proiektua errotzen ari da. Bigarren edizioan babesle gehienek errepikatuko dute, askok euren laguntzak handituz, abentura honek etorkizunerako oinarriak ezar ditzan. Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, EAEko hiru Aldundiek, udaletxe ugari eta euskal enpresek osatzen duten babesle taldea Euskarak batzen ditu.

Mundu osoko gazte euskaldunak esperientzia aberasgarri eta ahaztezin batean batzea, hori izan da EuskarAbentura Elkartearen ametsa. Azkenean 2018ko uztailean 16-17 urteko 110 gaztek, probintzia euskaldunetatik eta munduko beste hainbat txokotatik etorritakoak, oinez gurutzatu zituzten euskal lurraldeak eta zazpi hiriburuak, honek gordetzen dituen mila sekretu deskubrituz. Hala ere, lehenengo espedizio horretan parte hartu duten neska-mutilek (jzioquitar), monitore (xerpa) eta antolatzaileek, beraiekin daramaten altxorrik handiena Euskal Herri eta mundu osora zabaltzen den lagun taldea da.

Hizkuntza ohituretan eragitea, gazte euskaldunen sare bat sortzea, Euskal Herria ezagutzea eta balore osasuntsuak transmititzea; horra hor talde sustatzailearen lau helburu nagusiak. Elkarreak “sare”aren garrantzia azpimarratzen du, baina ez soilik gazteek sortutako lagun sare; “proiektua babestu eta bultzatu duten bidaide sareari esker gaude hemen” azpimarratu du elkartekide den Iker Goñik. Izan ere, proiektuak Euskal Herriko hainbat instituzioren babeslegotza jaso du. EuskarAbentura Espedizioak Euskal Autonomi Erkidegoa, Nafarroa eta Iparraldeko probintziak batzen ditu eta gero eta estuago lotzea espero du. Egitasmoaren atzean Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua, hiru Aldundiak, Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea eta hainbat eta hainbat udaletxe elkartu dira, baita euskaltel eta Kaiku bezalako babesle pribatuak ere.

EuskarAbenturak hasieratik izan duen helburu printzipala, proiektuaren izenean ikus daitekeen bezala, euskararen sustapena da. Lorea Bilbao Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kulturako foru Diputatuak esan duenez “Euskara bera erakargarri izatea, bizitza osorako abentura polita”. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuorde den Miren Dobaran eta Nafarroako Euskararen Institutuko Zuzendari den Mikel Arregi bat datoz EuskarAbentura bezalako egitasmoak babestearen garrantziaz. “Hiru administrazioek 2017an Hiruko Ituna sinatu genuen eta egitekoen artean euskaren erabilera aisialdian sustatzea dugu. Horregatik gure ardura da gazte hauei euskara erabiltzeko aukerak ziurtatzea eta Euskarabenturak helburu hau betetzen du, zalantzarik gabe” esan du Arregik. Erakunde guztiak ados daude, gazteengan egin behar den esfortzuaz, izan ere, Gipuzkoako Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendari den Garbiñe Mendizabalek esan duenez, “euskararen etorkizuna ere gazteek marraztu eta egingo dute”.

Nerabe eta gazteengana iristea askotan erronka handia izaten da eta 2019ko edizio honetan EuskarAbenturako antolatzaileak 2DEO Euskarazko Ikus Entzunezko Laborategiarekin elkarlanean hasi dira. Kolaborazio honen helburua espedizioaren energia parte hartuko ez duten gazteei helaraztea da, ikus-entzunezko formatuan. Momentuz urtarrilean lan sesio batzuk antolatu dituzte proiektu baten hasierako ideia bilatzeko.

Bestelako laguntza ere jaso dute Eusko Ikaskuntza edo .EUS Fundazioaren eskutik, adibidez. Haiek izango dira gazteek izen-emateko bidali behar dituzten lanak ebaluatzearen arduradunak. Izan ere, abenturan parte hartu nahi duten gazteek motibazio gutun bat eta lan bat egin beharko dute, azken hau elkarreak proposatutako 3 gaietatik bat eta 6 lan motaren artean bat aukeratuz egin beharko dute. Izen-ematea martxoaren 10era arte egin ahal izango da www.euskarabentura.eus webgunetik eta bertan aurkitzen da egin beharreko prozedurei buruzko informazio guztia. Bizipen honetan parte hartu nahiko luketen helduek ere beraien aukera izan dezakete elkarreak laster zabalduko dituen lan eskaintzetara hautagaitza bidaliz. Aurtengo espedizio taldea lagunduko duen begirale/xerpa, erizain, sendagile, gidari etab. bilatzen ari dira eta lan eskaintzak elkartearen webgunean, sare sozialetan eta lansarean argitaratuko dira.

EuskarAbentura tejiendo redes

La expedición EuskarAbentura echa raíces. En su segunda edición, la mayoría de los colaboradores han decidido seguir con su apoyo, y muchos apuestan más fuerte a fin de que el proyecto asiente sus bases para el futuro. Los gobiernos de Euskadi y Navarra, las tres Diputaciones de la CAV, numerosos ayuntamientos y empresas vascas conforman el grupo de colaboradores que tiene un claro objetivo común: el euskera.

Reunir a jóvenes euskaldunes de todo el mundo en una experiencia enriquecedora e inolvidable. He ahí el sueño de EuskarAbentura Elkartea. En 2018, 110 jóvenes de 16-17 años, provenientes de todas las provincias euskaldunes y de distintos rincones del mundo recorrieron las tierras vascas durante un mes conociendo mil secretos que en ellas se esconden. No obstante, el tesoro más preciado con el que las y los participantes han finalizado esta primera expedición es el conjunto de amistades que se han forjado entre los participantes (jzioquitarrak), los monitores (xerpak) y organizadores.

Influir en las costumbres lingüísticas, crear una red de jóvenes vascos, conocer Euskal Herria y promover valores positivos, estos son los cuatro objetivos de EuskarAbentura. La asociación insiste en la importancia de las “redes”, aunque no solo de las que han creado los y las participantes; “estamos aquí gracias a la red de colaboradores que han apoyado e impulsado nuestro proyecto” afirma Iker Goñi, miembro de la asociación. El proyecto cuenta con la colaboración de numerosas instituciones y espera servir para estrechar lazos entre el Gobierno Vasco, el Gobierno de Navarra, las tres Diputaciones de la CAV, la Euroregión Akitania-Euskadi-Navarra y los numerosos ayuntamientos que ayudan a que este proyecto sea posible. También se cuenta con el apoyo de patrocinadores privados como Euskaltel y Kaiku.

El objetivo principal de EuskarAbentura, tal y como se puede observar en el mismo nombre del proyecto, es fomentar el uso del Euskera. Tal y como lo ha indicado la Diputada Foral de Cultura y Euskera “que el euskera sea una atractiva aventura de por vida para la juventud”. La Viceconsejera de Política Lingüística del Gobierno Vasco, Miren Dobaran y el Director del Instituto Navarro del Euskera, Mikel Arregi, coinciden en la importancia de apoyar proyectos como EuskarAbentura. “Euskadi, Iparralde y Navarra firmamos en 2017 un convenio para la promoción del euskera y uno de los compromisos que tomamos fue fomentar el uso del euskera en el tiempo de ocio. Por eso nuestro deber es asegurar que éstos y éstas jóvenes tengan opciones de hacerlo y EuskarAbentura cumple sin duda con este objetivo” ha declarado Arregi. Todas las instituciones comparten la misma opinión: el futuro hay que insistir en las generaciones jóvenes, también el futuro de nuestro idioma el Euskera, tal y como nos ha indicado la Directora de la Igualdad Lingüística de la Diputación de Gipuzkoa, Garbiñe Mendizabal, “el futuro del euskera lo dibujarán los jóvenes”.

La asociación cuenta también con ayudas de otro tipo de la mano de entidades como por ejemplo Eusko Ikaskuntza y la Fundación .EUS. Ellas serán las responsables de evaluar los trabajos presentados en las candidaturas. Cualquier joven nacido/a en los años 2002-2003 podrá inscribirse enviando una carta de motivación y un trabajo en uno de los 6 formatos propuestos por la asociación, sobre uno de los 3 temas a elegir. La inscripción estará abierta hasta el 10 de marzo y se realizará a través de la página www.euskarabentura.eus. Los y las interesadas podrán encontrar aquí toda la información necesaria. Las personas adultas tendrán su oportunidad de participar presentando su candidatura para las diferentes ofertas de trabajo que pronto se publicarán en la misma página web, redes sociales y lansarean. Este año la asociación busca monitores/as-xerpas, auxiliares sanitarios, médicos, conductores/as etc que estén dispuestos a acompañarlos durante un mes de aventura.

EuskarAbentura tissant des réseaux

L'expédition EuskarAbentura s'enracine. Lors de sa deuxième édition, la plupart de ses collaborateurs ont décidé de renouveler leur engagement, et plusieurs ont augmenté leur soutien afin d'assurer le futur du projet. Les gouvernements d'Euskadi, de Navarre, les trois Préfectures de la CAB, de nombreuses municipalités et plusieurs entreprises basques forment le groupe de collaborateurs, qui partage un objectif commun : l'euskara.

Réunir un groupe de jeunes bascophones originaires du monde entier autour d'une expérience enrichissante et inoubliable ; voilà le rêve de l'association EuskarAbentura. Dans cette année 2018, 110 jeunes de 16-17 ans de toutes les provinces bascophones et de divers pays du monde, ont parcouru les territoires basques pendant un mois à la découverte de leurs mille de secrets. Mais le plus précieux trésor que les jeunes (jzioquitarrak) de cette première expédition ont trouvé, ainsi que les moniteurs.trices (xerpak) et membres de l'organisation, ce sont les liens d'amitié qu'ils ont lié.

Les quatre objectifs d'EuskarAbentura sont d'influer sur les habitudes linguistiques, créer un réseau de jeunes bascophones, connaître Euskal Herria et transmettre des bonnes valeurs. L'association insiste dans l'importance des « réseaux », pas seulement parmi les participant.e.s ; « nous sommes arrivés jusqu'ici grâce à un réseau de collaborateurs qui ont soutenu et promu notre projet » affirme Iker Goñi, membre de l'association. Il s'agit d'un point de convergence naturelle des territoires de la Communauté Autonome Basque, de la Navarre et d'Iparaldea. L'initiative espère aider à renforcer les liens entre le Gouvernement Basque, le Gouvernement de Navarre, les trois Préfectures de la CAB, l'Eurorégion Aquitaine-Euskadi-Navarre et les nombreuses municipalités qui contribuent à réaliser le projet, de même que des partenaires privés tels qu'Euskaltel ou Kaiku.

Comme on peut voir dans son nom, le principal objectif d'EuskarAbentura est de promouvoir l'usage de l'euskara. Comme l'a indiqué la Députée de Culture et Euskara de Bizkaia, « que l'euskara soit une attirante aventure à vie pour la jeunesse » La Vice-ministre de Politique Linguistique du Gouvernement Basque, Miren Dobaran, et le Directeur de l'Institut Navarre de l'Euskara, Mikel Arregi, défendent l'importance de soutenir des projets comme celui d'EuskarAbentura. « Euskadi, Iparaldea et Navarre, tous les trois avons conclu en 2017 un accord pour la promotion de l'euskera et l'une des décisions que nous avons pris est de promouvoir l'usage de la langue parmi les jeunes dans leur temps de loisir. C'est pourquoi nous avons le devoir d'assurer que ces jeunes ont l'opportunité de le faire, et EuskarAbentura atteint clairement ce but ». Toutes les institutions sont du même avis : il faut prendre en compte les jeunes ainsi qu'agir sur le futur de notre langue. Selon Gabiñe Mendizabal, Directrice d'Égalité Linguistique de la Préfecture de Gipuzkoa « le futur de l'euskera sera écrit par les jeunes »

D'autres organismes tels que Eusko Ikaskuntza ou la Fondation .EUS, parmi d'autres, fournissent le projet d'une autre façon. Eux concrètement seront les responsables de l'évaluation des candidatures. Tout.e jeune né.e dans les années 2002-2003 pourra s'inscrire en envoyant une lettre de motivation et un projet individuel, dans l'un des 6 formats proposés par l'association, versant sur l'un des 3 thèmes à choisir. L'inscription pourra se faire jusqu'au 10 mars à travers le site web www.euskarabentura.eus. Toute l'information sur l'inscription est sur le site. Les adultes qui voudront participer à l'expédition pourront présenter leur candidature aux postes de travail de moniteur.trice, auxiliaires sanitaires, médecins, conducteurs.trices... Les offres d'emploi seront publiées sur le site internet, sur les réseaux sociaux et sur lansarean.